

ZARAUTZ / Arabaierako liburu eskaintza zabala Udal Liburutegian

ZARAUTZ. DV. Zarauzko Udal Liburutegiak, Saharatik uda pasatzera etorri diren haurrei eta hauen familiei edo arabierara hurbildu nahi duen edozeini jakinarazi nahi dio arabierazko liburuen eskaintza zabala duela. Batetik, ipuinak, etab... eta bestetik, hizkuntza ikasteko materiala. Dokumentuak arabieraz eta gaztelaniaz, arabieraz eta frantsesez edo arabiera hutsez daude. Liburutegia hau bideratzeko Saharautz elkartearekin harremanetan izan da. Liburu hauek eskatzeko, udal liburutegira azaldu besterik ez duzue.